Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pilar Arana Bengoetxea Argiñeneku

Bermeo, Bizkaia (1911)

Aurkibidea

Biografia

1911. urtean jaio zen Auste Kantalen, Aroztegi kalean, 10 neba-arrebako familia batean. Aita bertakoa zuen, arrantzalea, eta ama umetan Ibarrangelutik etorritakoa. Umetan mojen ikastetxean ibili zen. Amak zapata-denda izan zuen, "Argiñeneku", eta umetatik ibili zen bertan lanean. 23 hilebetez aita preso izan zuten. Bere ahizpa gazteenagaz batera, Begoñagaz, egin genion elkarrizketa 100 urte betetzeko zegoela. Argazkian, eskumakoa da Pilar.

Zintak

BRM-072

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-05-12
- **Iraupena**: 88 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. Austen Kantalen jaioak

- **Erref**: BRM-072/002
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:00:19. **Bukatu**: 00:01:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak

Laburpena:
Beraien aita arrantzalea zen Tomas 'Hargiñe'. Austen Kantalen jaio ziren, gaur egun Aroztegi kalea denean.

2. Gizonezkoek ikasteko aukera gehiago

- **Erref**: BRM-072/007
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:04:50. **Bukatu**: 00:06:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Pilar debaldeko eskolara joan zen eta Begoña "pago"kora. Baina ez zuten batak bestea baino gehiago ikasi. Moja nagusiak Pilarri ikasteko aukerak zituela igarri arren, orduan nebak zeuden ikasten eta berak ez zuen ikasteko aukerarik izan.

3. Eskolako gaiztakeriak

- **Erref**: BRM-072/008
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:06:00. **Bukatu**: 00:09:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
Eskola garaian dena zen erdaraz. Behin mojal batek "El presente den verbo 'estar'" esateko esan zion eta Pilarrek kanta batekin erantzun zion. Moja

arrazoiarekin haserretu zela dio. Ostera, beste behin Hermana Mikaelak arrazoi barik egin zion errieta. Orduan ere Pilar ez zen isilik geratu eta izan zuen zer erantzun. Ama nagusiak asko maite zuen Pilar.

4. "Loidxe"tako kontuen arduradun

- **Erref**: BRM-072/010
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:09:29. **Bukatu**: 00:10:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:
Pilarrek itsasontzien "loidxen" (bodegen) kontuez arduratzen zen, ikatzez zebiltzan sasoi hartakoak.

5. Pezeta bat irabazteko lanak

- **Erref**: BRM-072/011
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:10:27. **Bukatu**: 00:12:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:
Pilar Bermeoko portuko itsasontzi askoren kontuez arduratzen zen. Bilbotik ekartzen zuten ikatza. Enbarkazio asko zeuden eta hiru sozietate. Hainbat lan desberdin egitea suertatu zitzaion eta horiek azaltzen ditu. Pezeta bakar batek balioa zuen eta lan egin behar izaten zen.

6. Mutil txikiak arrantzaleak abisatzera

- **Erref**: BRM-072/013
- **Iraupena**: 0:00:27. **Hasi**: 00:12:33. **Bukatu**: 00:13:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:
Patroiak mutil txikiari esan eta hauek etxerik etxe joaten ziren arrantzaleei itsasoratzeko orduaren berri emotera.

7. Oinetakoak ez bustitzeko oinutsik

- **Erref**: BRM-072/014
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:13:00. **Bukatu**: 00:13:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Antzina oinetakoak ez bustitzeko edo ez zikintzeko oinutsik ibiltzen ziren. Kokotetik abarketak amarra (lotu) eta kito. Miseria asko zegoen.

8. Miseria bai, baina goserik ez

- **Erref**: BRM-072/015
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:13:48. **Bukatu**: 00:15:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Nahiz eta miseria asko ezagutu, beraien etxean ez zuten ezeren faltarik. Arraina saldu eta aparteko jeneroa erosteko nahikoa zuten; hori dela-eta, ez dute goserik ezagutu, nahiz eta gaur egungo mizkeriarik ez izan.

9. Gerran dendarako zapata bila Bilbora joan behar

- **Erref**: BRM-072/019
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:17:29. **Bukatu**: 00:19:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:
Gerra garaian, amaren zapata-dendarako zapata bila Bilbora joaten ziren. Ez zuten zelan joan garraio eskasia zela-eta, eta soldaduekin eta ahal zen moduan joaten ziren. Zapatak egiteko lehengaiak falta ziren eta 'Cotorruelo'k egiten zituen. Dirua fala arren, arrainarekin truke egiten zuten.

10. Bilbora bidean zubia apurtuta

- **Erref**: BRM-072/020
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:19:31. **Bukatu**: 00:21:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Amaren zapata-dendarako oinetako bila Bilbora joan behar izaten zirenean, askotan trenez joaten ziren. Behin zubia apurtu egin zen Zornotzan eta paketez beteta bertan gelditu zien eta inork ez zien gura izan lagundu. Orduan gertatutakoak eta beste anekdota batzuk era kontatzen ditu.

11. Batean erosi bestean saltzeko

- **Erref**: BRM-072/022
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:22:50. **Bukatu**: 00:24:13

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Produktuak leku batean erosi eta beste batean salduz ateratzen zuten bizimodua. Amaren zapata-dendan egiten zuen lana eta biltegietara-eta oinetako bila joaten zirenekoa gogoratzen du.

12. Errezoak

- **Erref**: BRM-072/024
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:24:18. **Bukatu**: 00:25:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:
Gure Jauna ematera etorri zaie etxera eta bertan errezatutakoak jaso ditugu pasarte honetan.

13. Zapata-dendan hilabete bukaeran ordaindu

- **Erref**: BRM-072/027
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:29:00. **Bukatu**: 00:29:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Beraien zapata-dendako bezeroak ez zuten momentuan ordaintzen. Gehienak arrantzaleak ziren edo itsasotik bizi zirenak, eta arrantza-kanpaina bukaeran edo hilabete bukaeran ordaintzen zien.

14. Bilbon bonben erasoak

- **Erref**: BRM-072/029
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:30:01. **Bukatu**: 00:30:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Behin Bilbon zeudela, abioi bat etorri eta bonbak botatzen hasi zen. Beraien zapata-dendarako oinetakoak erosten zituzten biltegikoak hainbat senitarteko galdu zituen orduan

15. Euskaraz berba egitearren entzun beharrekoak

- **Erref**: BRM-072/032

- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:33:56. **Bukatu**: 00:34:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Ahizpa biak euskaraz berbetan zihoazen behin eta gizon batek dialekto hori ez berbetako esan zien. Pilarrek orduan ere izan zuen zer erantzun.

16. Konfesatzerakoan erdara dela-eta txarto ulertu

- **Erref**: BRM-072/036
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:36:04. **Bukatu**: 00:38:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Behin bermeotar batzuk Begoñara joan ziren konfesatzera eta erdaraz konfesatu behar izan ziren. Hizkuntza del-eta izandako anekdota bat kontatzen du.

17. 'Euskadin jaio nitzan' abestia

- **Erref**: BRM-072/039
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:41:14. **Bukatu**: 00:42:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
'Euskadin jaio nitzan' abestia abesten dute.

18. 'Automobilak ere otsua ekar dau'

- **Erref**: BRM-072/044
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:44:28. **Bukatu**: 00:46:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
Hauteskundeak zirela-eta, bermeotar bati aterarako kanta abesten du. 'Automobilak ere otsua ekar dau'

19. 'Foruak kendu' abestia

- **Erref**: BRM-072/046
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:46:28. **Bukatu**: 00:48:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
'Foruak kendu' abesti ezaguna abesten dute,

20. 'Hargiñenekuen' abestia

- **Erref**: BRM-072/047
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:48:36. **Bukatu**: 00:49:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
Beraien familiari egindako abestia: 'Hargiñenekuena'. Bukaeran azalpena ematn dute.

21. Lantegiko nagusiari ateratako kanta

- **Erref**: BRM-072/049
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:50:14. **Bukatu**: 00:51:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
Bermeoko lantegi bateko jabeari ateratako kanta abesten dute.

22. 'Zu zara Sabin buru argiko' abestia

- **Erref**: BRM-072/053
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:52:41. **Bukatu**: 00:55:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
'Zu zara Sabin buru argiko' abestia abesten dute ahizpa biek.

23. Aitak bizitako pasaiduz bat

- **Erref**: BRM-072/055
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:55:42. **Bukatu**: 00:57:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
Aitak elizara bidean behin bizitako kontu bat kontatzen du Pilarrek.

24. San Juan kanta

- **Erref**: BRM-072/057
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:58:24. **Bukatu**: 00:59:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:
San Juanetan bermeon abesten duten kanta abesten dute.

25. San Inazioren kanta

- **Erref**: BRM-072/059
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:59:15. **Bukatu**: 01:01:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
San Inazioren kanta.

26. 'Bermioko portuan' abestia.

- **Erref**: BRM-072/062
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 01:02:36. **Bukatu**: 01:04:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
'Bermioko portuan' abestia.

27. Erdaraz jakin barik aita kartzelara

- **Erref**: BRM-072/069
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 01:09:45. **Bukatu**: 01:12:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Eskolan dena e egin behar izaten zuten erdaraz. Aitak ez zekien erdaraz eta 23 hilabetez izan zuten kartzela espia zelakoan. Heriotza-zigorrera kondenatu zuten.

28. Herritarren arteko elkartasuna

- **Erref**: BRM-072/071
- **Iraupena**: 0:03:43. **Hasi**: 01:16:46. **Bukatu**: 01:20:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:
Baserritarrekin beti izan dute hartu-eman ona. Arropak ere baserritarrei ematen zizkieten. Arrautzak-eta baserritarrei erosten zieten. Goserik ez zuten pasa. Abade batek oinutsik aurkitzen zituen umeak beti eroaten zituen beraien zapata-dendara. Zapatak askotan zorretan ematen ziren.

29. Lehengusu ministroa erberteratua

- **Erref**: BRM-072/072
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 01:20:29. **Bukatu**: 01:21:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:
Beraien lehengusu bat gerra garaian nekazaritza ministroa izan zen. Mugaz bestaldera joan behar izan zuen eta beraien etxearen eta dendaren ardurak eurek hartu zuten.

30. Nebari ateratako kanta

- **Erref**: BRM-072/076
- **Iraupena**: 0:00:24. **Hasi**: 01:23:25. **Bukatu**: 01:23:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
Beraien nebari kanta bat atera da zioten eta horixe kantatzen du Pilarrek. Sabino Arana deitzen zen beraien neba hori.

31. 'Gernikako arbola' abestia

- **Erref**: BRM-072/079
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 01:25:57. **Bukatu**: 01:27:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
'Gernikako arbola' abestia kantatzen digu Pilarrek.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-24

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com